

noaua

**Sariako eremua
berreskuratzea helburu**

**Jaien balorazio bilera,
uztailaren 17an**

**Udako ordutegia
indarrean, zenbait
udal zerbitzuetan**

Hasi dira berritze lanak

**Oinezkoek
lehentasuna
izango dute Aginagan**

erredakzioa@noaua.com

www.noaua.com



Laster oporretara goaz

**Uztailaren 19an kaleratuko dugu ikasturte
honetako azken NOAUA! astekaria**
Irailaren 6an argitaratuko dugu hurrena

Uda honi begira ohar, albiste, zorion agur... edo iragarkiren bat
ipini nahi baduzu, gogoan izan uztailaren 15a baino lehen
ekarri edo bidali beharko duzula.



ORDUTEGI BERRIA:
egunero 06:00tik 21:00ra

asteburutan ere
gaueko 21:00ak arte!

PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

Kaixo noauakide!

2013ko

2013ko kuota kobraketa
dugula jakinarazi
bezala,

2013ko uztailaren 12an

Kaixo noauakide!
2013ko kuota kobraketa, **uztailaren 15an** hasiko
dugula jakinarazi nahi dizuegu. Kuota, pasa den urtean
bezala, **36€**takoa izango da. Beraz, **36€** kobratuko zaizue
datozen egunotan. Kutxa bidez kobraketa egiteko baimena
eman badiguzu, bide hori erabiliko dugu aurten ere.

Ordainketa eskuz egiten duzenok gure kontu korrontean
sartu beharko duzue dirua edo gure egoitzara ekarri.
Hauxe da gure kontu korronteko zenbakia:

Kutxabank: 2095 5069 04 1061881826
Besarkada bat eta hurrengo arte.
NOAUA! KULTUR ELKARTE

BAZKIDETZA

OHARRA: Azken urtean, zure datu pertsonaletan aldaketarik egon bada, guri ahalik eta lasterren jakinaraztea
eskertuko genizuke. Aldi berean, edozein zalantza argitzeko guregana jo dezakezu.

Albiste iruditan

Hauteskundeetan bezala, denak garaile plantak egiten

Hailetako batzuk Kalezarko San Joanetan hasi zuten uda parteko txapelketen erronda. Eta Santixabeletan beste hainbat batu zaizkie. Jendetsua izan zen, uztailaren 2an, herriko festetan ospatu zen karta jokoko lehia. Hasiera 15:30etarako zegoen iragarria. Eta iluntzean amaitu zen. Txosna gunean bertan ospatzekoak ziren beste ekimenei lekua egiteko gainera, txapelketa amaitzen ez zela ikusita, antolatzaileek lehiakideak bitan lekuz aldatu behar izan zituzten; lehenik, Askatasuna plaza Dema plazarekin lotzen duen pasabidera, eta gero, finalerdi eta finalak jokatu zituzten Aitzaga Elkartera. Sari bana-keta bai, txapelketa hasi zen leku berean burutu zen. Herriko trikitilariak eskaintzen ari ziren erromeria gunean, txosnetako oholtza gainean.

Hauxek dira garaileak:

- 1-Patxi-Joxemari.
- 2-Pako-Pablo.
- 3-Eusebio-Esteban.
- 4-Julen-Zapa.



Lehia bizia eta luzea izan zen, Santixabeletako mus txapelketakoa.

Laburrean

Uztailaren 15ean hasiko da lehen sorospenen inguruko ikastaroa

Uztailaren 15etik 30era antolatu du DYAK. Saioak Artzabalen izango dira, astelehenetik ostiralera, 10:00etan hasi eta 13:00ak arte. Prezioa: 100 euro. Informazio gehiago eta izen ematea: 943 46 46 22 edo dyagipuzkoa.com

Matrikulazio epea ixtear da Lanbide Eskolan

Uztailaren 12a, azken eguna. Izen emateko ordutegia: ostegunera arte goiz eta arratsalde, 9:00-14:00 eta 16:00-18:00 artean. Ostiralean goizez bakarrik, 9:00-14:00 artean. Informazio gehiago: eskola@lhusurbil.com / 943 36 46 00.

Euskara ikasi dutenentzako diru laguntza deialdia

Eskabideak aurkezteko epea uztailaren 17ra arte dago irekia. Ikasketa mailak eta ikasle bakoitzaren lan egoera aintzakotzat hartuko dira. Eskabideak udal erregistroan aurkeztu behar dira. Bertan jaso daiteke informazio gehiago.

noaúa

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkartea@noaúa.com /// www.noaúa.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.

Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Bea Alda,
publizitatea@noaúa.com.

Diseinu berria: Erroitiz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaúa.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa
Zulaika.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainar

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria
Jesus Urbieta, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo,
Jon Etxabe, Alazne Begiristain,
Denis Elortza, Pello Aranburu,
Xabier Aranburu, Inma Balda,
Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre,
Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia
Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Nerea Zinkunegi

Kiroldegiko erakusketa dela eta

Aitortu behar dut, erakusketa, aitzakiakaitzaki, ez dut ikusi, eta honek berak idazten jartzeko garaian halako deserosotasuna sortzen dit.

Erakusketaren inguruan ataratako triptikoa dabilkit eskuartean ordea, "BIDEAN: ezkutu-kotik ikusgaitasunera 1977-2007" dio portadak, eta hondo moduan aitzinako irudi bat ageri da non bi emakume jarre-

ra maitagarrian agertzen diren eta izenburu moduan; "NO SE PRIVE, es un consejo del colectivo de feministas lesbianas".

Erakusketa kiroldegian izan da ikusgai eta antza, zenbait guraso kexan agertu dira kiroldegian bertan eta udaletxean, esanez umeak sarri ibiltzen direla bertan eta...ETA?

Kexazalea naiz, eskubidea iruditzen zait eta praktikara eramaten dut maiz, baina kexak

ezin du inoiz inoren eskubiderik zapaltzeko helburua izan, zentzua galtzen du.

Kezka sortu zait bat-batean, emaztea eta biok elkarrekin muxu ematen ikusten bagaitu inork, begiak estaliko ote dizkio seme-alabari? Are gehiago, kargu hartuko ote digu?

Erakusketaren triptikora noa bueltan, atzealdera, Audre Lordek dioena zoragarria baita: "


Geuk landatutakoa ari gara orain biltzen. Askatasunak, ametsak, kexak, berria, etortzeke zegoena landatu genituen...Esan ziguten ez zirela haziko, baina guk landatu egin genituen. Erotuta geundela, galduak ginela esan ziguten, baina landatu egin genituen. Eta landatutakoak sustrai sakinak zituenez, heldu egin da, heldu egin zaigu".

Earra zekana!!!

Imanol Ubeda | Luis Aranalde | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre | Maialen Unanue | Aritz Gorriti | Ugaitz Agirre | **Nerea Zinkunegi**

Komikia

roger.minguell@gmail.com



Preso daudenen eskubideen alde

Buruntzaldeko udaletako EH Bilduko udal ordezkariak, alkate eta zinegotziek, euskal presoek eskubideen aldeko hamar konpromiso hartzeko erabakia plazaratu zuten, uztailaren 3an Lasarte-Oriako Villa Mirentxu udal eraikin kanpoaldean burutu zuten agerraldian. Ildo beretik, iragan urtarrilaren 12an Bilbon eginiko manifestazioaren lelo eta aldarriarekin bat egiten dutela adierazi dute, "Giza eskubideak. Konponbidea. Bakea. Euskal presoak Euskal Herrira" dioen aldarriarekin hain zuzen. Ezinbestekotzat jotzen dute dispersioarekin eta honek dakartzan eskubide urraketekin berehala amaitzea. Hauek guztiak bidezko eta lehentasunezko aldarritzat jotzen ditu EH Bilduk eta "koalizioaren hautetsiak helburu hauekin bat egiten dugun heinean, aldarrikapen hauek gure eskualdeko udal guztietan bultzatuko ditugu".

Urte hasieran Bilbon eginiko manifestazio jendetsuak "interpelazio erraldoia" suposatu duela diote. Batetik espainiar eta frantziar gobernuak interpelatu zirela, "gatazkaren konponbiderako aukeraren aurrean duten blokeo jarrerarengatik eta jarrera horixe, hein handi batean, euskal presoek eskubideen urraketan oinarritzen dutelako". Eta bestetik, baita eragile politiko, sindikal eta sozialak ere. "Euskal jendarteak konpromisoak eskatzen dizkigu guztioi; dispersioarekin amaitzeko, giza eskubide guztien aitortza eta errespeturako, gatazkaren konponbiderako eta bakearen eraikuntzarako", berri eman dute prentsa ohar bidez, EH Bildutik.

Aurrerapausorik ez presoek arloan

Euren esanetan, gatazka politikoaren ondorioei aurre egiteko ordua heldua da. Eta konponbide horretan, beste zenbait arloetan urratsak eman diren artean, aurrerapausorik eman ez den arlo bakarra, presoek eskubideena dela gogorarazten dute. "Jarrera inmobilistenak hortzen ari gara ikusten", salatu dute EH Bildutik.



Buruntzaldeko udal ordezkariak agerraldia egin berri dute.

Hamar konpromisoak

Egoera honen guztiaren aurrean, euskal presoek eskubideen alde hamar konpromiso hartu dituzte Buruntzaldeko udaletako EH Bilduko alkate eta zinegotziek. Tartean, Usurbilgo Udalekoek. Hauexek:

- Herriko presoek egoeraren inguruko udal dosierara osatzea hilabeteko epean eta sei hilabeteko berritzea.
- Hasierako dosierri Instituciones Penitenciariasera, Audientzia Nazionalako Espetxe Zaintzako Epaileari, Justizia Ministerioetara eta Estrasburgoko Giza Eskubideen Batzordeari igortzea bertan jasotzen diren eskubide-urraketak ekiditeko eskatuz.
- Herriko presoekin bisita erronda ofizialari ekitea.
- Herriko presoek udal erabakiak eta udalak argitaratu edo ateratako materialaren ale bana bidaltzea.

tzea.

- Hilabeteko azken ostiraletan Herrirak deituta-ko elkarretaratzetan parte hartzea modu ofizialean.
- Udaleko ordezkari gisa parte hartzen duten ekitaldi guztietan presoek eskubideen defentsa adierazten duen txartela eramatea.
- Preso gaixoak dauden herrietan alkateen taldean parte aktiboa hartzea presoak etxeratu arte.
- Hiru hilabetean behin herriko presoek senideekin bilerak egitea, egoeraren berri zuzena izateko.
- Euskal Herritik kanpo dauden presoek bisitatze-ko diru-laguntzak eman ahal izateko araudia onartzea.
- Etxerat eta Herrira elkarrekin udal lokalak uztea beraien bilerak edo lanak egin ahal izateko.

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
 teilatuak eta fatxadak
 943 37 38 79 - 620 80 01 86
 Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Patri Jatetxea

 K/nagusia 14. © 943 362 725

ANTXETA
 taberna-jatetxea
 eguneko menuak
 ogitartekoak
 plater konbinatuak
 Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Garraio publikoko zerbitzua hobetzeko parte hartze prozesua abiatuko du Foru Aldundiak

Gipuzkoako lau eskualdeetan, tartean Buruntzaldea, garraio publikoan dauden hutsuneak aztertu eta inbertsioa egiteko prest dago Gipuzkoako Foru Aldundia. Datozen urteetarako bus zerbitzuen emakidak edo kontzesioak behar dituztenez, herritarren iritzia jaso nahi dute. Larraitz Ugarte Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako diputatuak adierazi bezala, "herritarren beharrak entzun eta hortik erabakiko ditugu datozen urteetarako garraio publikoko zerbitzuak. Herritarren nahierara egindako garraio zerbitzuak izango dira". Horretarako Aldundiak Gipuzkoako 57 herritan parte hartze prozesuak egingo ditu Aldundiak.

Gipuzkoako hego-mendebalde osoan egingo dira parte hartze prozesuak. Inguru horretan garraio publikoa eskasa dela nabarmendu dute, dauden gabeziak aztertu eta hobetzeko helburuarekin. Berritu beharreko garraio zerbitzuak lau eskualdetan edo banatzen dira: Goierrialdea, Urola-Debabarrena, Debagoiena eta Tolosaldea-Buruntzaldea.

Irailetik aurrera abiaraziko da

Azken honetan Buruntzaldea eta Tolosaldea Donostiarekin lotzen duten zerbitzuak konstante hartuko dituzte: Urnieta, Andoain, Lasarte-Oria, Usurbil, Hernani, Astigarraga, Tolosa, Villabona, Irura.



Uztailearen 3an eman zuen honen berri Larraitz Ugartek, arloko diputatua.

Parte hartze prozesu horietan guztietan eskualde barneko garraioaz, eskualde arteko loturaz eta eskualdea hiriburuekin lotzen dituzten zerbitzuei buruz hitz egingo dute. Prozesua, herritarrei begira, iraila-urria inguruan hasiko da. Jasotako ekarpenekin 2014ko otsailera-ko aurreproiektua idatziko da. Behin betiko proiektua 2014ko ekainean egongo litzateke, eta 2014ko urte amaierarako zerbitzu berriak martxan jarriko lirateke.

2014rako, garraio zerbitzu berria

Uztailearen 3an egin zuten agerraldian Larraitz

Ugartek adierazi zuenez, Aldundiarentzat oso garrantzitsua dela parte hartze prozesua bi arrazoirengatik: "herritarrekin egingo delako, baina baita ere Udalekin egingo delako. Bilerak hasi dira Udalekin, beraiekin lankidetzaren harremana landu nahi da. Udalek ere garraioaren arloan protagonista izan behar duela uste dugu, askotan beraiek jasotzen baitituzte kexak, eta beraz, modu koordinatuan lan egin behar dugula uste dugu. Poza adierazi nahi dugu prozesu hau egitera goazelako, eta 2014rako garraio zerbitzu berria izango dugulako Gipuzkoan".

Ospitaletara doan bus zerbitzua Aginagara iristen da orain, egunean seitan

Uztailearen 1etik, TSST enpresak aldaketa hauek egin ditu. Era honetan, Donostiako ospitaletara doan busa Aginagaraino heltzen da orain.

Usurbil-Oria-Lasarte-Ospitalak:

Ospitaletara doan zerbitzu hau egunean sei aldiz Aginagaraino heltzen da dagoeneko, Usurbilgo Udaletik eginiko eskaerari erantzunez. Linea hau ez da Zubietatik pasatzen jada. Honenbestez, Zubietako bizilagunek Donostiako ospitale gunera joateko, Lasarten autobus aldaketa egin dezakete. Bus zerbitzu honen ordulegiak:

- Irteerak Usurbildik: 7:20-22:40, orduero.
- Irteerak Donostia Ospitaletik: 8:50- 20:50 orduero, eta baita: 8:10ean, 11:10ean, 13:10ean, 15:10ean, 18:10ean eta 22:10ean.

Usurbil-Zubietatik-Lasarte-Urbil-Hernani:

Lehen baino bi aldiz gehiago igaro da zerbitzu hau Zubietatik. Ospitalera joan nahi duten zubietarrek bestalde, Lasarten egin beharko dute transbordo, eta aurrerantzean Aginagara ospitaleekin lotuko duen beste zerbitzuko autobusa hartu. Beste aldaketa bat; lehen Usurbil eta Astiga-

rraga lotzen zituen zerbitzu hau, uztailearen 1etik aurrera Hernanin amaituko da. Astigarragaraino joan nahi duenak, Hernanin bertan egin beharko du transbordo. Erraz, 15 minuturo baitaude Astigarraga aldera joateko autobusak. Ordulegiak:

- Irteerak Usurbildik: 7:15-21:15 artean, orduero.
- Irteerak Hernanitik: 7:45-20:45 artean orduero (10:45 eta 17:45ean izan ezik).
- Irteerak Lasartetik Usurbilera: 7:00-21:00 artean orduero (iturria: usurbil.net)

Beherakada orokorra, ekaineko langabezia datuetan

J^oera aldaketa baten hasiera ote den edo ez baieztatzeko goizegi da oraindik, baina langabezia tasari dagokionez, azken 8 hilabeteetako daturik baikorrenak kaleratu berri ditu Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak. Azken hileotan, 370etik gora 400eko mugara gerturatzeko joan ostean, ekainean 363 herritar zeuden lanik gabe Usurbilen. Maiatzean baino 12 lagun gutxiago. Beherakada hau ia adin tarte eta sektore guztietan nabarmendu da. Halere, langabetuaren profilak betikoa izaten jarraitzen du Usurbilen; emakume aurpegia du, eta 25-44 urte artekoa da. Langabeziak gehien kolpatzen jarraitzen duen sektorea, zerbitzuen beste behin.

Beste datu baikor bat; maiatzean 284ra jaitzi ostean, gorantz egin du erregistratutako lan kontratuen kopuruak. 314 izan ziren ekainean, apirilean bezala. Hori bai, ia denak, 307 aldi baterako kontratuak ziren. 314tik erregistratutako 213 lan kontratu, gizonezkoenak ziren. 94 baino ez emakumezkoenak. Eta gehienak, 255, zerbitzuen sektorekoak.

Langabezia behera ere Buruntzaldean

Usurbilen bakarrik ez, langabeziaren beherakada Buruntzaldea osoan (ia 400 lagun gutxiago ekainean) eta Gipuzkoan ere nabarmendu da joan den hilabetean. Herrialde mailan, mila hirurehun lagunean murriztu da langabetuen kolektiboa. Hona hemen orain arte aipaturikoa, maiatzetik ekainera egon den aldaketa, zenbakietan.



Behera egin du langabeziak maiatzetik ekainera.

USURBIL

Gizonezkoak: 176tik 168ra.

<25: 22tik 18ra.

25-44: 92tik 90era.

>=45: 62tik 60ra.

Emakumezkoak: 199tik 195ra.

<25: 11.

25-44: 102tik 98ra.

>=45: 86.

SEKTOREAREN ARABERA

Nekazaritza: 3.

Industria: 76tik 77ra.

Eraikuntza: 40tik 35era.

Zerbitzuak: 235etik 224ra.

Aurretik lanik gabe: 21etik 24ra.

BURUNTZALDE OSOAN, BEHERA

Guztira: 5.043 (maiatzean 5.401).

GIPUZKOAN, BEHERANTZ

Guztira: 48.503 (maiatzean 49.869).

Oharra: maiatzetik ekainera izandako aldaketak ageri dira goiko zenbakietan.

Sorospen ikastaroa antolatu du DYAK

L^ehen sorospenen inguruko ikastaroa antolatu du DYAK-^k uztaileko bigarren hamabostaldirako; hau da, hilaren 15etik 30era. Izen ematea irekita dago, 943 46 46 22 telefono zenbakian edo www.dyagipuzkoa.com atarian. Bide hauetatik jaso liteke, ikastaro honen inguruko informazio gehiago ere. Adi, plazak mugatuak izango dira eta. Ikastaroko matrikulazioak, 100 euroko prezioa izango du. Diru kopuru honen baitan sartzen dira saioak, antolatzaileek banatuko duten ikastaroko materiala eta ikus-entzunezko baliabideak.

Goizetan, Artzabalen

Saioak asteleheneetik ostiralera izango dira; goizez eta hiru orduz, 10:00-13:00 artean Artzabalen. "Egunero aurki ditzakezun arrisku egoera nagusiei ekiten ikasiko duzu: bihotz-birikeren suspertzea, zauriak, hausturak, erredu-rak... eta egoera hauei nola aurre egin eta konpontzen erakutsiko zaizu", iragarri dute DYAK-^{tik}. Guztia modu errazean, teoria eta praktika uztartuz. "Funtsezko eta oso erabilgarriak diren ezaguerak era erraz eta entretenigarri batean, gai-zerrenda baten arabera erakutsiko dira, hezkuntza praktikoeekin txandakatu-ko direnak", gaineratu dute.



4 eta 5 urtekoen artean, "izena eman duten ikasle guztiak plaza izango dute" Zumarten

Z^{en}bait gurasok egindako eskaera azertu ondoren, Udala eta aipatutako gurasoekin bilera egin eta demografiak erakusten dituen datuak aztertu eta gero, "2013-2014 ikasturterako 4 eta 5 urteko ikasle-^{en} plaza kopurua zabalduko da, honen ondorioz, dagoeneko izena eman duten ikasle guztiak plaza izango dute datorren ikasturtean". Hala adierazi berri digute

Zumarte Musika Eskolatik. Argibide hauek hartu beharko dira kontuan, Zumarte Musika Eskolako zuzendaritzak hala erabakita:

- Plaza zabalitze hau gauzatzeko ezinbestekoa izango da izena eman duten ikasle guztiak irailaren matrikulatuta egotea eta denak ikasturtea hastea.
- Maila bakoitzeko ikasle kopuru handia denez (30), adin bakoitzean bi gela egongo dira

(15-15), gela batek Zumarten emango du klasea eta besteak Udarregi ikastolako musika gela (edifizio gorria).

- 4 urteko ikasle-^{en} gela banaketa-zerrenda Zumarteko iragarki taulan dago jarrita.
- 5 urteko ikasle-^{en} gela banaketa-zerrenda irailaren 2an astelehena, arratsaldeko 19:00tan Zumarten egingo den zozketaren ondoren iragarriko da.

Aginagako erdigunea, oinezkoentzat

ARISTITXO PILOTALEKUA ERAIKI ETA GUTXIRA SORTU ZIREN KALTEAK KONPONDU NAHI DIRA

Lanegileak pasabidea hesiekin mozten, eta lanek iraun artean frontoi inguruko pasabidea itxita egongo zela iragartzen zuten oharrak jarrita, Arrate zahar egoitzako edota eliza zaharreko atarietan. Ezohiko itxura honekin esnatu zen Aginagako Kaxkoa, aste hasieran. Eguna ailegatua baitzen. Astelehenean, uztailearen 8an hasi zituzten Altuna y Uria enpresakoek, Aginagako erdigunea berritzeko lanak. Atzetik datorren proiektua da, egungo gobernu taldeak esku artean hartu eta gauzatzera doan eraberritze egitasmo hau. Bere garaian, Aristitxo pilotalekua eraiki eta gutxira sortu ziren kalteak konpontzea da helburua. Baina aldaketa eta berritze lanok, gehiagorako emango dute. Aginagako erdigunean, frontoi inguruko pasabidean oinezkoek izango dute lehenetasuna aurrerantzean. Autoek berriz, ibilbide mugatua izango dute bertan.



Lanek iraun artean, frontoi inguruko eremua itxita egongo da.

Piboteek zehaztuko duten bide zatia baino ez dute izango autoek, frontoi ingurura gerturatzeko, bertatik igarotzeko edota karga eta deskarga lanetarako. Pasabidea bera txukuntzeko lanak egingo dituzte baita. Pilotaleku atzealdetik, zahar egoitzako eraikin parerainoko lurzorua berritu asmo dute batetik; zeuden galtzada-harriak altxa eta hormigoia bota asmo dute.

Eta aldaketa gehiago. Frontoi atzealdean, eliza zaharrari begira dagoen eskenatoki txikia, erabiltzen ez dela eta bota egingo dute eta gune horretan bertan kokatuko dute, egun Eskola Txiki atarian dagoen jolas parkea. Hau-

HAINBAT BERRITASUN

“Frontoi inguruko pasabidean oinezkoek izango dute lehenetasuna aurrerantzean”

rrek beraz, frontoi atzean izango dute kolunpiotan ibili edota txirristatik jaisteko aukera aurrerantzean. Udalak gainera, parke hau tramankulu berri batekin hornituko du. Eskalatu eta zintzilikatze aukera emango duen jolas berri bat txertatuko du, lekuz aldatuko duten parkean.

Konponketak, irailerako prest

Udalak Altuna y Uria enpresari esleitu dizkion lanok, hiruzpalau aste irautea aurreikusten dute. Udako oporraldi ostean, ikasturte berria martxan jartzerako, Aginagako Herri Ikastetxea berriz ireki eta irakasle eta ikasleak itzultzera beraz, berrikuntza lanok amaituta behar lukete.

Egitasmo honen berri emateko udal ordezkari bat aginagarrekin bildu zen iragan astean bigarren, ludotekan deitu zuten herri batzarrean. Momentuz, hauek dira Aginagako erdigunean egin asmo dituzten eraberritze lanak. Etorkizunari begira ordea, bada erronka potoloago bat Aginagako kaxkorako; orain berrituko duten eremu osoa, oinezkoena izatea hirigintza arauetan jasoa dagoen bezala. Araudi honen arabera, ibilgailuen joan etorria frontoi atzealdetik bideratuko litzateke. Eta honenbestez, Arrate zahar egoitza aurrealde osoa oinezkoena izango litzateke. Halere, aipatu moduan, aurreragoko kontuak dira hauek. Momentuz, egingo dituzten lan hauekin, ibilgailuen mugimendua mugatu eta oinezkoei lehenetasuna emango zaie.



Eliza zaharrari begira dagoen eskenatoki txikia bota eta jolas parkea ipiniko da bertan.

Aisialdiak, oporrik ez

UDAKO TXOKOETAN MURGILDUTA DAUDE AGINAGA, ZUBIETA ETA HERRIKO GAZTETXOAK

Umeen algarak, gurasoen joan etorria, begiraleen zaintza lana... Herriko festak bukatu eta berehala hasi da aurten ere, udako errutina. Urtero asteotan errepikatzen den egunerokoa. Udajolasek inoizko parte hartzaile kopuru altuena izan du aurten. 4-12 urte arteko 145 haur eta gaztetxo murgildu baitira udako aisialdi eskaintza honetan. Uztailaren 30era arte, goizero astelehenetik ostiralera, zeregin eta erronka bakarria izango dute; lagun artean, begiraleek prestaturiko ekintzetan parte hartu eta ondo pasatzea.



145 lagun elkartu dira aurten Udajolasen. Ez ziren denak argazkian kabitzen...

AGINAGAN, BI HILABETE

Aginagan bezala, han ere, otordu berezi batekin emango diote amaiera egun berean, San Praixku Guraso Elkarteak antolaturiko txokoei. Momentuz, bederatzi haur ari dira parte hartzen Aginagako txokoetan. Beste bi batuko zaizkie taldera, hilabete honen erdialdean.

Antolatzaileek hain zuzen, hilabete osorako izan beharrean, hamabostaldi baterako

apuntatzeko aukera ere eskainia baitzieten gurasoei. Txokoetako argazkia ateratzeko hitzordua jarri genuenean, udako egun eguzkitsuari probetxua ateratzeko, Aginaga inguruak ezagutzera irtenak ziren begirale eta haurrak.

ZUBIETAKO KUOTA

Zubietan, Eskola Txikia dute egoitza nagusi. Ordaindu beharreko kuota zehaztu dute jada.

Eskola Txikian matrikulatuta dauden haurrak: hilabete osoa, 110 euro. Hamabostaldia, 80 euro.

Beste eskoletan matrikulatuta dauden haurrak: hilabete osoa, 120 euro. Hamabostaldia, 90 euro.

Kuota 2095 5048 18 1061266564 kontu korrontean sartu beharko da Kutxako ziurtagiriko azalpenean haurraren izena eta abizena jarritz.

Ziortzakoak, Errioxan

Peñaloscintos (Errioxa) aldean, Cameros mendizerra inguruetan dira Ziortzako kanpaldira joandako lehen txandakoak, DBH-ko ikasleak. Uztailaren 17ra arte egongo dira bertan. Haiek itzultzen diren egun berean, abiatuko dira Usurbildik Errioxa aldera LH 5 eta 6 mailetakoak. Hilaren 25era arte egongo dira Peñaloscintosen.



Aginagako txokoetan diren begiraleak eta gaztetxoak.



Zubietako txokoetan diren gazteak eta begiraleak, Eskola Txikiaren aurrean.

Saria berreskuratzea helburu

EUROPA MAILAN, KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUA IZENDATU BERRI DUTE ORIAKO EREMU HAU

Gipuzkoa mailan azken urteetan gauzatu den padura berreskuratze lanik garrantzitsuena egitera doaz, eta ostegun honetan, uztailaren 11n aurkeztuko dute, arratsaldeko 18:00etan hasita Potxoenean; Saria mendebaldeko ibarraren ingurumena lehengoratzeko, Foru Aldundiak eta Usurbilgo Udalak elkarlanean gauzatu asmo duten egitasmoa hain zuzen.

Zer hobetua badago eta inguruotan, sus-tatzaileen ustez. "Azken hamarkadetan uraren kalitatea hobetu baldin bada ere, ibai ertza eta inguruko ibar eta padurak erabat ubideratuta daude". Horri lotuta gainera, gauzatzen hastear diren proiektuak helburu argi bat du. Eragileek hitz gutxitan azaltzen dutenez, "azken mendean ibaiari kendutako eremua berriz ere itzultzea da asmoa, guztion mesederako". Lehengoratzeko prozesuaren lehen fasean, lau hektarea inguru berreskuratuko direla berri eman dute Udaletik, "ibaiaren eta itsas mareen eragina berreskuratuz, egun garatzen ari den lezkadia indartuz, eta bitarte horretan sortuko den habitat aberastasuna bultzatuz".

Saria mendebaldeko inguru hau, Europa mailan Kontserbazio Bereziko Eremua izendatua dago, "Oriako itsasadarra Usurbil, Aia eta Oriok partekatzen dugun altxor ekologiko bat da. Berriki, duen balioa aitortu eta Natura 2000 sarearen barruan, Europa mailan Kontserbazio Bereziko Eremua izendatu da. Horretaz gain, Usurbilgo Udaleko araudiak ere babes berezia aitortzen dio eremu honi, eta Euskal Auto-



Foru Aldundiak eta Usurbilgo Udalak elkarlanean gauzatu asmo duten egitasmoaren berri emateko, bilera irekia deitu dute ostegun honetarako. 18:00etan Potxoenean.

“ALTXOR EKOLOGIKOA”

“Azken mendean ibaiari kendutako eremua berriz ere itzultzea da asmoa, guztion mesederako”

nomi Erkidego mailan ere babes bereziko eremua da. Argi dago beraz, Olaberrietako padurakin batera, Saria mendebaldeko ibarra dela Oriak ibaiak Usurbilen utzi digun babestutako naturagune baliotsuena”.

Udal langile plaza betetzeko lan-deialdia

railetik aurrera hutsik geratuko den udal langile plaza, lanaldi osorako bitarteko funtzionarioz betetzeko hautaketa prozesua abiatzea erabaki du Usurbilgo Udalak. Deialdi honetarako, oposizio sistema baliatu asmo du. Interesdunek eskaerak aurkezteko epea zabalik dute, uztailaren 19ko arratsaldeko 14:30ak arte. Oinarrien berri eta eskaera-orriak Udalaren web orrialdean eskura daitezke: www.usurbil.net helbidean.

Zehaztasunak, GAO-n

Eskaera orriarekin batera, nortasun agiriaren kopia, eskatutako titulazioaren kopia, B motako gidabaimenaren kopia, 1. Hizkuntza eskakizunaren egiaztagiria- ren kopia (edo baliokide den tituluarena) aurkeztu beharko dira. Deialdi honen oinarriak, 127. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO) argitaratu ziren joan den uztailaren 4an. 140. orrialdetik aurrera, oposizio prozesuaren nondik norakoak edota udal langile horrek egin beharreko lanen inguruko informazioa jasotzen da. Aldizkari ofizialean argitaraturiko oinarriok atxikita dute baita, deialdi honetan izen emateko orria ere.

Txingudi eta Urdaibairekin, erreferentziazko gune berria

Urdaibai edota Txingudiren ostean, Saria mendebaldearen txanda da orain. Aipatu beste bi eremuen antzera, inguruotako erreferentziazko paduran bilakatzeko gaitasuna du Sariak, proiektu honen sus-tatzaileen esanetan. "Gure itsasadarretan ohi-koak ziren padurak ia desagertu dira, eta horrekin batera habitat hauen balioa (hegazti, arrain, angula, landaredi, ornogabeen ezinbesteko elikadura eta babesguneak dira). Urdaibai edo Txingudik leheneratu dituzte beraien itsasadarra, ingurumenaren, tokiko ekonomiaren eta bertako bizilagunen bizi

kalitatearen mesedetan. Oriako itsasadarra berriz, Aginaga eta Orio artean ez da urbanizatu eta Euskadi mailan erreferentziazko padura bilakatzeko gaitasuna du, baina horretarako berreskuratze lanak egin behar dira", adierazi dute Udaletik.

Gauzatu asmo duten proiektu berri honen inguruko zehaztasunak ostegunean emango dituzte ezagutzera. Udalak herritarrei uztailaren 11ko aurkezpen ekitaldira joateko gonbita luzatzen die. Aipatu moduan, aurkezpen ekitaldia, arratsaldeko 18:00etan hasiko da Potxoenean.

Usurbilgo sagarra, udako freskagarri naturalena

Usurbilgo sagardotegi eta baserrietako sagardoak zure eskura; Astiazaran, Saizar, Urdaira, Arratzain, Aginaga, Gorostidi, Olano eta Aialde berri.



Akabo festak

O hitura den bezala, azken traka saioarekin amaitu ziren jaiak. Berezia, alaia eta koloretsua izan zen, dantza taldekoen eta gaztetxe-koen eskutik eskaini zuten koreografia. Eta koloretsu zein burrunbatsuak, segidan etorri ziren su artifizialak. Bat ez, hiru maskota sortu ditu Jokin Eizagirrek aurten, baina bakararra erre zen traka saioan. Beste biak, herriko gazteekin batera dantzan aritu ziren plazan eta, gero, jaso egin zituzten. Aurreko astean, NOAUA! aldizkaria asteartean bidali genuen inprentara. Beraz, egun handiko ekitaldi askoren argazkiak publikatu ezinik geratu ginen. Hemen dituzue, beraz, Santixabel egunean jaso genituen hainbat irudi.



Argazki eta bideo gehiago topatuko dituzue noaua.com web orriko Argazkitegian eta NOAUA! TB atalean.



Jaien balorazio bilera, uztailaren 17an

Santixabelak amaitu berrian, jaiak prestatzen aritu diren eragile eta herritarrak azken bilera baterako deituak daude. Herriko festak baloratzeko Jai Batzordeak antolatuturiko bilerara hain zuzen. Uztailaren 17rako finkatu dute hitzordua, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean. Jai Batzordetik ohartarazi dutenez, “egokia litzateke, egun horretarako, ahal balitz, dirukontuak zuritzeko agiriak ekartzea”. Jaietan parte hartu duten herri eragileei bilerara-

ko gonbita luzatzearekin batera, ebaluazio orri bat bidali zaie. Ebaluazio orri hau ostiral honetarako, uztailaren 12rako betetzea eskatzen zaie Santixabelen antolakuntzan parte hartu dutenei. “Garrantzitsua iruditzen zaigu jaien balorazioa egitea ondo egindakoak mantendu eta hobetu beharrekoak bideratzeko. Hori dela eta, esker-tuko genizuke gutun honekin batera bidali dugun ebaluazio-orria betetzea”, eskatu diete Jai Batzordetik aipatu eragileei.



Ebaluazio orria uztailaren 12rako betetzea eskatu zaie jaietako eragileei. Bilera uztailaren 17an izango da, Potxoenean 18:00etan.

Tortillak egiteko esku ona daukate



Mus txapelketarekin batera, patata tortilla onena prestatzeko saia-

keran aritu ziren lau lehiakide talde. Museko sari banaketaren ondoren, burutu zen, lehiaketa hau.



Epaimahaiaren arabera, hauek izan ziren tortilla onenak egin zituzten taldeak: Uribe-Eneritz-Eñaut hirukotea

txapel-dunorde geratu zen, eta Karlos-Oskar-Jesusek osaturiko hirukotea izan zen txapel-duna.



Udako ordutegia, zenbait udal zerbitzuetan

Uda heltzearekin batera, ordutegiak urte garai honetara egokitu dituzte zenbait udal zerbitzuek.

SUTEGI

Sutegi liburutegia esaterako, goizez eta bost orduz irekiko dute uztaila eta abuztu osoan zehar; 9:00-14:00 artean. Irailaren 9an ohiko ordutegira bueltatuko dira.

KIROLDEGIA

Oiardo Kiroldegiko ordutegia ere urte garai honetara egokitu dute. Hasteko, abuztuaren 1etik 25era itxita egongo da. Eta gainerakoan, udan zehar, ordutegi honetan egongo da zabalik:

-Asteleheneretik ostiralera, 7:00-13:00 (igerilekua eta Kiroldegia) eta 17:00-20:30 (igerile-



Sutegiko liburutegia goizez bakarrik izango da zabalik uztaila-abuztuan.

kua 20:00ak arte).

-Larunbat eta igandeetan: 9:00-13:00 (igerilekua eta Kiroldegia).

BUS TAXIA

Garraio zerbitzuetan ere beste

hainbeste. Euskotrenek eta Lurraldebusek indarrean dute udako ordutegia. Baita kaxkoa landa eremuarekin lotzen duen bus-taxiak ere. Goizez bakarrik ibiliko da uztailan; abuztuan ez da bus-taxirik izango.

Ostiral honetan amaituko da Lanbide Heziketan matrikulatzeko epea

Laster amaituko da Lanbide Eskolan izen emateko epea. Uztailaren 12an, hain zuzen. Ordutegi honetan egin daiteke matrikulazioa: asteleheneretik ostegunera, 9:00etatik 14:00etara goizez, eta 16:00etatik 18:00etara arratsaldean. Ostiralean aldiz, 9:00-14:00 artean soilik.

Lanbide Eskolak erdi eta goi mailako honako zikloak eskaintzen ditu, A eta D erduetan: administrazioa eta kudeaketa, elektrizitate-elektronika, fabrikazio mekanikoa, ura eta energia alorreko loturiko zikloak.

Matrikulatzerakoan honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da: NAN fotokopia

bat, egindako ikasketen ziurtagiri akademikoa (originala eta kopia) eta bi argazki, atzealdean izen abizenak idatzita.

Informazio gehiago, www.lhusurbil.com web orrialdean, eskola@lhusurbil.com helbide elektronikoan edo 943 36 46 00 telefono zenbakian.

Ikasturteko azken oharrak Udarregitik

2013-2014 ikasturtean LH eta DBHko ikasleek erabiliko dituzten testu liburuen zerrenda argitaratu du Udarregi Ikastolak, web orri bidez. LH-ko zerrendaren kasuan, alboan izartxo bat dutela ageri dira, derrigorrez erosi beharreko liburuak. "Egoera onean ez dauden liburuak ez dira onartuak izango: zirriborroekin, ariketak bertan egindakoak, azpimarratutakoak...", ohar-tarazi dute ikastolatik. Lehen Hezkuntzako lehen mailakoek adi. Ikasturte honetako, "irakurgai berriak 2011n argitaratutakoak dira, beraz, zaharragoak ez dira onartuko".

DBHko liburu zerrendari erreparatuta, beste zenbait ohar. LHn bezala, "egoera onean ez dauden liburuak ez dira onartuak izango: zirriborroekin, ariketak bertan egindakoak, azpimarratutakoak...". Lan koaderno berriak erosi behar dituzte zenbait kasutan, eta "datorren ikasturtean EKI material berriaren ezarpena egingo denez, (2013/14: DBH1ean eta ondoren maila bat urteko) DBH2ko liburu berriak erosi beharrean bigarren eskukoak lortzea aholkatzen dugu".

Dokumentazioa

Liburuak bakarrik ez, irailan ekingo dioten ikasturte berriari begira, ikastolak prestatu duen txostena jasoko dute ikasleek etxean. "Bertan, egutegiarekin batera, kurtsuaren antolaketari dagokion beste hainbat informazio-gai aurkituko duzue", adierazi dute Udarregitik.

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Andoni Errazkin
Xukin
 igeltsaritza orokorra
 Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
 ☎ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

ESKAIOLA eta PLADUR
 Joxean Elorza
699426042
 USURBIL

Santxo-Urruzola, pilota txapelketako txapeldun orde



Argazkian, bi finaletan parte hartu zuten pilotariak, antolatzaileak eta udal ordezkariak.

Udaberrietik hona asteburuetan jokatu den Usurbilgo Pilota Txapelketako finalak ospatu ziren Santxabel egunez. Usurbilgo ordezkariak bakarra genuen, 41. edizioko azken neurketa hauetan; nagusien mailan, Santxo-Urruzola bikotea. Aurkariei ordea ezin izan zieten aurre egin, tarte handiz nagusitu ziren eta bergararrak. "Partida oso sendoa jokatu zuten. Defentsan oso ongi eta Muguruzak tanto politik sartu zituen. Galtzaileek ez zuten bere eguna izan, eta nahiz eta borroka asko egin, momentu garrantzitsuetan ez zuten asmatu", adierazi dute antolatzaileek.

Jubenilen kasuan, amezketar pilotariak nagusitu ziren finalera heldutako tolosarren aurrean. Tarte txikiz halere, hiru puntuko aldearekin. Lehia bizia izan zen partida honetan.

"Galtzaileak 18-13 irabazten joan ziren, baina gero irabazleak nagusitu ziren partida gogor batean. Finaleko onena, Eskudero leitzarria izan

zen", gaineratu dute.

Usurbilgo Pilota Txapelketako antolatzaileek eskerrak helarazi nahi dizkiete, laguntzaile eta herritar guztiei. Hauexek, Usurbilgo Pilota Txapelketako finaletako emaitzak:

JUBENILAK

Zubiria-Eskudero (Amezketeta) 22
Ormazabal-Iruretagoiena (Tolosa) 19

NAGUSIAK

Muguruza-Bolinaga (Bergara) 22
Santxo-Urruzola (Usurbil) 8

Final saio hauetan gainera, errifan zozketa egin zen. Honatx sarituak:

-Bruño mariskada: 2944 zenbakiarekin, Mila Iribar saritua.

-Patri jatetxean bi lagunentzako otordua: 3460 zenbakiarekin, Arantxa Agirre saritua.



Zubiria-Eskudero Amezketako bikotea jaun eta jabe izan zen jubenilen arteko finalean.



Muguruza-Bolinaga Bergarako bikotea gailendu zen nagusien finalean.



Mila Iribarrek irabazi zuen Bruñoren mariskada.



Santxo-Urruzola finalera iritsi ziren baina azken garaipena Bergara aldera joan zen.

LATAILLADE

ITURGINTZA
 Gas, berogintza, klimatizazioa, instalazioak
 eta mantenimendua
 Aristitxo 8, behea 943 363 348 - 609 888 021

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza
 • segurtasun beirak • dutxa-itxurak eta irristailuak
 • ispiuak • barandak • kristal mota guztiak...
 Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukeraz ezin hobea. Ifaki (665736896)

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berritzeko. Fatxada eta portala berrituak. 3 logela berriak. 138.000 e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julen.

Etxe bizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpian. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, +60 metroko trasteroaren pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalefakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbar handia. Lehen 240.000 euro, orain 200.000 (negoziagarriak). 662 056 899.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 ml lur sail

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goialdean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Ilean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbararekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzaren jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berrituta, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena beriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Kaskoan pisu bat alokatzen dugu, Txaramunton. 4 gela, sala, bi komun eta sukaldea. Abala eskatzen da. Tlf. 688 675 856

Pisu bat alokatzen da kaskoan, 3 logela, sala, sukalde, komuna. Dena kanpoaldera, eguzkitsua. 648868599

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, ganbara eta igogailuarekin. 943371495-695767821-657711335

Gela bat alokatzen da dena berri-tua kaxkoan, gizaseme langile

jubilatu bati. Etxe lasaia. Atzeritarrik ez. Tel. 687 348 223.

Logela bat alokairuan Zubietan. 350 euro. 655 744 039.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berri bategan. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratzeta egiteko aukera. 665 720 913.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil 622 856 181.

MOTORRA

salmenta, garajeak

Kia Carnival 2.9 CRDI EX 5P 144 C. monobolumena (7 plaza) salgai. 6.500 euro, 80.500 Kms. 645737925 / 691785568

Garaje itxita salgai. 20 m karra-tuak. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Opel Zafira salgai, 1.781cv. 2010eko urrikoa. 25.000 km. Oso egoera onean. 652759267

Seat Ibiza 1.4Tdi 80zaldi. 58.500km.

2009 urte amaierakoa, 5 ate, txuria. Jabe bakarra, ez erretzaila eta beti garajea.

Volkswagen Multivan 2.5 TDI 130cv salgai. 2006koa, 151.000 km, gris iluna. 650919065.

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kotxea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Udan edo ikasturtean zehar umeak zainduko nituzke. Lan hone-tan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaitxo dauden pertsonen erizaintzarako emateko prest nengoke. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrak emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udaran zehar goizez zein arratsaldez. Irakaskuntza gradua bukatzeaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrak ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goizez zein arratsaldez. Irakaskuntzan diplomatu. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketari. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketari eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, espe-

rientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordu-tan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria pres-tatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrak ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingeniari-tza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Mutil katalan gazte euskaldun berri bat eskaintzen da, adinekoak zaintzeko edo katalanera-ko klaseak emateko. 677 290 212 (Roger).

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte arduraduna, arratsaldeetan 6-12 urte-tako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsaldez, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar eus-



Zorionak Iraia eta aitona!
Uztailaren 12an Iraiaren

urteak eta 13an aitonenak izango ditugu. Zorionak eta ondo pasa!!! Muxu potolo bana etxekoan partez.



Zorionak Eñaut!
Dagoeneko zure 8. urtebetetzea

iritsi da, Eñaut: uztailak 13an. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partez.



Aupa Nahiane eta Enaitz!
Urtebete eta sei urte

beteko dituzue, uztailaren 8an eta 12an. Zorionak eta muxu potolo bana etxekoan partez!

Heriotzak

Maria Pilar San Juan Vicente
83 urterekin hil zen, uztailaren 6an Usurbilen



Ohar, zorion-agur, jai edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan erredakzioa@noaua.com

kaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketara lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko ostalaritzarako, interna moduan 673445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zaindu arratsalde edo zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Lan eskaintzak

Emakume euskaldun eta esperientziaduna behar da Astigarragan, haur txiki bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Egun osoan, astelehenetik ostiralera. 943 550 550

Pizza banatzailea behar da Usurbilgo taberna batean. Telefono

zenbakia: 9433743 30

BESTELAKOAK

Botilei tapoiak jartzeko enkortaxadora bat salgai, 100 euro. Asadore elektriko bat, 100 euro. 943361235

Poliesterrezko txalupa bat salgai. neurriak: 2,60 metro luze eta 1,30 zabal. 500 euro. 605747114.

Urrezko lepoko bat galdu da, medalladuna, aurrekaldean Fletra bat duena, eskertuko genuke aurkitzen duenak deitzea. Familiako orroigaria baita (615731134)

Erosi gasolina sorgailu elektrikoak, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurrea erosiko nuke, deitu 634 409 888

Frantseseko klaseak hartuko nituzke. 666 607 447

Erromeri talde baterako, tronpetata eta tronboi jole bila gabiltza udahonetako kontzertuetan hasateko. 660214740

Etxean egindako haur manta bat galdu dugu, koadroduna, morea, grisa, horia eta naranja kolorekoa. Aurkitzen baduzu: 626 368 019

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Usurbil eta inguruetan belardiak hartuko nituzke, belar ondua egiteko. 667406010.

Hiru metroko sofa salgai, "beslorarekin". 400 euro (negozia-garriak). Berri berria. 653 711 574.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Karbonozko bizikleta erdi berria salgai. Prezio ona. Tel. 600244 126

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Gaszte usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekuak salgai gehi kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Ordenagailuak, bulegoetako eserlekuak, haurjokoak, liburuak, kirol materiala, ispiluak, lanparak, alfonbrak, sehaskak, maletak... Atalluko Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00. Larunbatetan, 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Abere-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udaltzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorzetxea	943 362 163
Oiardo Kirolegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkarte	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak uztailak 11-uztailak 21

Osteguna 11	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
Ostirala 12	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte
Larunbata 13	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Igandea 14	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Astelehena 15	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte
Astearte 16	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Asteazkena 17	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte

Osteguna 18	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Ostirala 19	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Larunbata 20	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Igandea 21	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8 (Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

ALKORTA AUTOZERBITZUA

Baserriko haragia

•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak

Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

txirriStra

TABERNA



-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Agenda uztaila

11 osteguna

■ Pirinioetako asteburu pasa prestatzeko bilera 19:00etan Sutegin.

13 larunbata

■ Zuberoako Pirinioetara asteburu pasa, Andatzakoekin.

14 igandea

■ Zuberoako Pirinioetara asteburu pasa, Andatzakoekin.

Elikadura beganoa ezagutu eta dastatzeko aukera aparta

Hilabete honetarako afari beganoa antolatuko dute Usurbilgo Gaztetxeak. Ostegun honetan egingo da afaria, uztaileak 11, iluntzeko 20:30etik aurrera. Animalietatik eratorri gabeko elikagaietan oinarritzen da elikadura beganoa.

Afaria iragartzeko eta, partehartzera animatzeko xedez, ohar hau helarazi digute gaztetxetik: "Datorren ostegunean, uztaileak 11, afari beganoa egingo da gaztetxean 20:30etatik aurrera borondatearen truke. Animalietatik eratorritako ezer gabe eginiko afari goxoxoa dastatzeko aukera paregabea gaztetxe-



Gaztetxean afari beganoa antolatu dute ostegun honetarako.

ko giro atseginean. Animatu hadi dedio!", luzatu dute gonbita antolatzaileek.

Datozenak

Pirinioetara joan aurretik, bilera deitu dute Andatzakoek

Asteazken honetan ixtekoa zuten izen emateko eguna, eta ostegunean egingo da, Andatza Mendizaleen Kirol Taldekoek astebururako Pirinioetara antolatu duten intererari loturiko bilera.

Andatzaren web orritik iragarri dutenez, aldaketak izango dira asteburu honetarako, uztailearen 13 eta 14rako Pirinioetara antolatu duten asteburu pasan. "Ibilbideak aldaketa batzuk izango ditu", ohararazi dute. Aldaketon berri, bi eguneko txangoari buruzko gainerako argibideekin batera, ostegun honetarako, uztailearen 11rako, 19:00etan Sutegin deituriko bileran eman goko dute.



Kakuetako arroila. Andatzakoek ostegun honetarako bilera deitu dute Sutegin.

DBHko notak jasotzeko azken egunak

Uztailearen 15era arteko epea dute oraindik noten bulletina jaso ez duten DBHko ikasleek, Udarregiko idazkaritzara joan eta eskuratzeko. Hauxe, idazkaritzako ordutegia: 8:30-13:00.

Euskara ikasi dutenentzako diru laguntza deialdia

Eskabideak aurkezteko epea uztailearen 17an amaituko da. Ikasketa mailak eta ikasle bakoitzaren lan egoera aintzakotzat hartuko dira. Eskabideak udal erregistroan aurkeztu behar dira.

USURBIL AUTOAK
 ·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SALMENTA

 **SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!**

zerbitzu ofiziala
 Zumartegi industrialdea  943 36 10 79

 **Kima** 

MASAJE LEKUA

·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
 · KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97



Udan ere, Sagardotegira! 🍏



SAIZAR

Sagardotegia

Kale-zahar auzoa, 39
USURBIL
Sagardotegiko erreserbak: 943 37 39 95
(Igande gaua eta astelehenetan itxita)

www.sidrassaizar.com

SAIZAR



Uztaillean eta Abuztuan



3€ko  **100** kontsumizio



3€ko 100 kontsumizio bale zozketatuko dira Hurbilago txartelaren erabiltzaileen artean.

